

ESKUORRIA: HH 2. ZIKLOA

IRAKASLE BERRIARENTZAT ESQUORRIA

Orereta Ikastolako HHn, hIZAn proiektuan oinarritutako hezkuntza eskaintzen dugu.

ZER DA hIZAN PROIEKTUA?

hIZAN HH proiektua pertsonon ongizatea helburu duen proiektua da, haurra gaitasunez beteriko pertsona dela oinarri hartuta eta munduaz ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita.

Proiektua aurrera eraman ahal izateko familiak, ikastola komunitateak antolaketa arkitektonikoak, materialak eta batez ere, berdinekiko harremanak hartuko ditugu kontuan.

Haurren senek berebiziko garrantzia dute proiektuan, horietan oinarrituta egin baitira hausnarketa eta aldaketa guztiak.

Gure proiektua sakonago ezagutzeko hona hemen lotura (dokumentua bukatutakoan hemen txertatu).

ERAIKINAREN ANTOLAKETA

- HE Esmalteriako beheko solairua.
- HH2 Esmalteriako goiko solairua, eskubiko aldea.
- HH3 Esmalteriako goiko solairua, ezkerreko aldea.
- HH4 eta 5 Linoko eraikina
- Beheko solairuan aldagela. (Aldatzeko arropa, oinetakoak, mantala)

TUTOREAREN FUNTZIOAK

- Ikasleak orientatu eta gidatzea.
- Irakasle edo tutore taldeak landutako tutoretza planak garatzea.
- Bere ardurapean dauden eta premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko curriculum egokitzapenak eta heziketa-lan bereziak koordinatzea, Heziketa Bereziko irakasleen laguntzaz.
- Ikasleei taldean eta eskola-bizitzaren osotasunean integratzen laguntzea eta ikasle horiengan parte hartzeko gogoia piztea.
- Bere etapako tutore eta irakasleekin koordinatzea.
- Ikasle eta irakasleen arteko harremanak hobetzeko eta arazoak konpontzeko, bitartekari izatea.
- Bere ardurapean dagoen taldeko ebaluazio-prozesua koordinatzea eta, gainerako irakasleen informazioa bilduz, bere ikasleen promozioa erabakitzea.
- Familiekin etengabeko komunikazioa bermatzea.

- Urtean behin ikasleen hezkuntza prozesuaz gurasoak informatzea. Honez gain, tutoreak zein gurasoek beharrezkoa ikus dezaketen guztiekin.
- Arazoak aurreikus daitezkeenean edota gertatu direnean, gurasoekin elkarriketatzea, konponbidean jarriz.
- Zuzendariak eskatzen dizkion eginkizunetan laguntza eskaintzea. Zuzendaritzaren kolaboratzaile leiala izatea bere esparruko arloetan.
- Ikasleen informea egitea.

FUNTZIONAMENDUA

Ikasleak gurasoekin sartuko dira gelaraino. Aurrez gurasoekin, takiletan edo zintzilikairuetan oinetakoak aldatuko dituzte eta berokiak utziko dituzte.

HH 3-4-5

09:00-09:30 eta 14:45-15:00 bitartean Sarrera malgua dago. Ikasleak tarte horretan gelara sartuko dira, horrela, irakasleek harrera pertsonalizatua egiteko aukera izango dute.

09:00-10:30 eta 14:45-15:45 Zirkulazio librea.

Helburua: Haurrak modu autonomoan mugitzea, beraien nahi eta beharrak asetzeko prestaturiko espazioan zehar. Irakasleek haurren garapen momentuari eta adinari dagozkion senen arabera prestatuko eta egokituko dituzte materiala eta espazioa.

Irakaslearen rola: Bidelagun eta behatzailea.

Espazioak:

- Esperimentazioa
- Sinbolikoa
- Eraiketak
- Plastika
- Motrizitate fina-Idazketa
- Matematika
- Puzzle eta mahai jokoak
- Liburutegia

Astean behin Psikomotrizitate saioa izango dute Psikomotrizitate gelan.

HH4-5 urteko ikasleek INGELES saioak izaten dituzte. Astean hiru saio gidatuak izango dira eta saio bat zirkulazio librea.

HIZKUNTZA

Egunero, tutore bakoitzak bere taldea jasoko du eta hizkuntzaren lanketa egingo du 30 minutuz. Urtxintxa proiektuan oinarrituta, ondorengoak lantzen dira:

- Errutinak

- Gaiarekin lotutako: ipuinak, jolas abestiak, tradizio kantak, hormairudiak, hiztegia, olerkiak, aho korapiloak, igarkizunak...
- HH5 urtekoekin Kontzientzia fonologikoaren lanketa
- Hamaiketakoa

JOLASLEKUA:

- Esmalterian: Barruko espazioa
- Linon: Plaza edo barruko jolaslekua.

Irteerak;

12:15 eta 16:30 (Esmalterian)

12:30 eta 16:15 (Linon)